

GURUTZEAREN OÑIAN



Ikusten zaitut, Jesús justua
gurutze orretan zintzillik,
guregantikan penak sufritzen
umiltasunez beterik;
ama maitea negarrez dago
gurutzearen ondotik,
bere biotza, ezpat zorrotzak
daukalako zulaturik.

Ikusitzen du seme maitea
gurutze orretan josiya,
gorputz guziya zauritua ta
odolez dena estaliya;
arantz'askoko koro bat berriz
burlez buruan jarriya....
¡egiyaz ama, semea dago
biziro negargarriya!

¡Guregantikan ama maitea
orrela zaude sufritzen!
¡guregantikan gizon justua
gurutz batian da iltzen!
¡guregantikan penaz betia
Maria zera arkitzen!
pena oyetaz ama maitea
¡zer guchi geran oroitzen!..

Pen'oyek denak bada alferrik
ama izan ez ditezen
lagun zaiguzu etsai artetik
ote geraden libratzen;
dudarik gabe zutaz maiz emen
baldin bagera oroitzen,
zeru ederrian egongo gera
zure ondoan gozatzen.

ENRIKE ELIZECHEA.

Errenteriyen.

